



2016 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

MEMORIA

Prozedura

Aurrekontu proiektua Oiartzungo auzoetan aurkeztu da. Denera 8 bilera egin dira 2015eko azaroan eta 114 herritarrek hartu dute parte bilera hauetan. Bilera hauetan hainbat ekarpen egin dituzte auzotarrek. Bestalde, Oiartzungo Udaleko beste alderdiarekin bilerak egin dira eta beste ekarpen batzuk jaso dira. Horrez gain, Ogasun batzordean aztertu dira aurrekontuak 2015eko urriaren 6, 15 eta 27an, azaroaren 3, 17an eta abenduaren 9 eta 15ean.

Prozedura hau jarraitu ondoren jasotako emaitza da 2016ko aurrekontuak.

Aurrekontuarekin bete nahi diren helburuak

Aurrekontuen helburu orokorra Udalak herritarrei zor dizkion zerbitzuen bermea ematea da, herriko azpiegiturak eta ekipamenduak sortu nahiz hobetuko dituen inbertsioak egiteaz gain.

Aurrekontuaren helburu zehatzagoak hurrengoak dira:

Aurrekontua estutzen lan handia egin da azken ekitaldietan. Egokitzapen honen ondorioz eta aurreikusten diren diru-sarreraren igoera kontuan hartuz, 2016 urtean inbertsioak eta baita beste hainbat alor indartzeko aukera izan dugu.

Herritarrekin auzoetan egindako bileren ondorioz hainbat behar eta hutsune nabaritu ditugu eta hainbat azpiegitura egokitu beharra. Hori izango da gure abiapuntu ondorengo legegaldian, Oiartzungo Udalak duen ondarea berritu, zaindu eta erabilera egokia bilatuko dugu. Horregatik beharrezkoa ikusten dugu udalak dituen eraikinak eta azpiegiturak berritzeari ekitea.

Politika soziala indartzeari dagokionez, herrian dauden behar ezberdinei erantzuten jarraituko dugu.

Obrak eta Zerbitzuen arloari dagokionez iazko erronka nagusiekin batera (atez ateko hondakinen bilketa eta garraio publiko sarea), auzoetan dauden hainbat gabezia eta beharrei irtenbidea emateko neurriak hartzea dugu helburu. Auzolana ere gure ardatzetako bat izango da hau guztia gauzatzeko. Zehazteagatik, ondorengoak dira arloko erronkak:

1. **Udal eraikinak:** orain arte Gazte izanak jubilatuen elkarteak eta Behemendi eta Foru Aldundiko nekazaritza sailak erabili izan duen eraikina egokitu beharrean aurkitzen da. Irisgarritasuna hobetu beharra dago eta lokalaren erabilera egokia bilatuko da.



Moldaketa eta obra batzuk eginez herriko beste hainbat zerbitzu bertan jarri ahal izango dira. Bestalde, Arizmendi etxean ere mantenu lanak egingo dira eta eraikinaren erabilera aztertuko da. Obra hauetarako 800.000,00 €-ko partida ireki da, udaleko proiektu nagusia izango delarik.

2. **Garraio publiko propio eta bideragarria:** Foru Aldundiaren eta Jaurlaritzaren eskumenekoak diren garraio publiko sareez gain, Oiartzungo Udalak baditu bi zerbitzu propio sortuak: Taxibus eta Xorrola. Biak bultzatzen jarraitzeko apustua egiten dugu.
3. **Auzoetan dauden hainbat gabezia eta beharrei irtenbidea emateko neurriak:** 2016ko aurrekontu partehartzaileen barnean, auzoetako inbertsioak auzotarrekin zehaztu dira. Bilera hauetan, auzoetan dauden beharrak identifikatu eta lehentasunak zehaztu dira. Honetarako 200.000 € jarri ditugu.
4. **Auzolana:** Hau dugu, auzoetako beharren egitasmoarekin batera, 2016 urteari begira egitasmo nagusienetariko bat. 2012, 2013, 2014 eta 2015eko bideari eutsiko diogu eta partida bat mantenduko dugu auzolanerako, bai auzoetara bideratzen diren auzolan egitasmoak gauzatzeko baina, baita herri mailan suertatzen direnentzako ere.
5. **Poligonoen biziberritzea:** Lan hauekin 2014an hasi ondoren, 2016an ere egokitzapenekin jarraituko dugu. Aurrera begira, urtero errepikatuko den lan lerroa izango dela aurreikusten da.
6. **Ur- hodian berritze lanak:** Azken urteetan ur-horniduran lan asko egin dira eta hoderia zenbait gunetan zaharkituta dago eta arazoak sortu izan dira. Aldi berean, hoderia metro asko daude “fibrozementuzkoak” eta hauek pixkanaka aldatu eta egokitzeko beharrari aurre egingo diogu. 2015ean hasiak gara lan horretan eta urteroko lana behar du hoditeri sare osoa berritu ahal izateko.
7. **Iraunkortasun Energetikoa:** 2012an egindako auditoriari esker, herriko zenbait behar identifikatu ziren. Argiteria publikoaren berritzeari ekin zaio 2015ean eta 2016ean bide berdinetik jarraituko dugu. Arlo honetan egiten ari garen inbertsio honek onura ekonomiko eta ekologikoak ekarriko dizkio Oiartzungo Udalari.
8. **Lintziringo Errepidearen berritze lanak:** Errepide honen egoera txarrak ezinbesteko obra egitea derrigortzen gaitu. Baina ez da Oiartzungo Udalak berak bakarrik egin beharreko obra, poligonoko partaideek eta Foru Aldundiak ere parte hartu beharko du obra horretan. Hasiak gara bilerekin proiektu hau martxan jartzeko. Proiektuaren zailtasunak suposatuko du 2016ean hasi baino ez garela egingo eta datorren 2017an obra amaitzea nahiko genuke. Aurten 300.000,00 €-ko partida bat jarri dugu proiektuko lehen lanentzako jakinik proiektuaren beraren guztizko gastua handiagoa izango dela.
9. **Euskal Herria plazaren egokitzapena:** auzoetako bileretatik datorren eskaera bat dugu hau. Herritarren erabilera handia duen plaza honen egokitzapenerako 40.000,00 € jarri ditugu gure aurrekontuan.



10. **Atez ateko hondakinen bilketa:** Hondakinekin bizi dugun arazo larria ikusita, atez ateko bilketa sistema eusteko apustua egiten dugu. Aurreko urteetan bezala, aurrera begira urrats berriak eman nahiko genituzke zerbitzua hobetu eta baliabideak optimizatzeko: poltsa

Gizarte politikari dagokionez hauek dira sailaren lehentasunak 2016 urterako:

1. **Arazo ekonomiko larriak pairatzen ari diren oiartzuar familiei eta herritarrei babesa ematea.** Udalak erantzun sendoa eman nahi die krisiak sortu dituen hainbat egoera larriei.
2. **Pobrezia mugan dauden familien egoera burokratikoak arintzea eta erraztea.**
3. **Etxez etxeko zerbitzua.** Menpekotasunak dituzten herritarren kopurua gora doa. Hau dela eta, Etxez Etxeko zerbitzuaren beharrak ikusita zerbitzu hau indartu nahi dugu.
4. **Egitasmo berrietan parte hartu:** Tipi Tapa proiektua, ospitaletan dauden pertsonen arreta, adin txikikoekin zenbait inizatiba, gizarte eragileen arteko jarduerak, kanpin eta errolden inguruko ikerketa...
5. **Arraztalo elkartearen** proiektua ebaluatu eta, ahal den neurrian, hobekuntza proposamenak egingo dira.
6. Gizarte zerbitzuak erabiltzen dituzten **emakumeen beharren azterketa eta egoeraren balorazioa egin**, aukeren berdintasuna, diskriminazio positiboa eta parekidetzaren aldeko politikak bultzatzeko.
7. **Elkarlan egitasmoak.** Gazteria saila, hezkuntza eta gizarte zerbitzuen arteko elkarlana antolatzea giza portaerak bultzatzeko herritarren artean. Bestalde, Oarsoaldeko gizarte zerbitzuekin elkarlana sendotzea bailaran dauden behar eta arazo amankomunei aurre egiteko.
8. **Gazte izanak elkarteak erabiltzen duen udal eraikinaren egokitzapena:** jubilatuentzako gune egokia eta irisgarritasun baldintzak betetzen dituen aingero da aurrez aipatutako obra eginez.

Mendia eta ingurumenaren arloari dagokionean helburu nagusienak honakoak dira:

Beste urteetan hasitako lanei jarraipena ematearekin batera aurten Landalurraren mantenu lanei, hirilurrean egiten den bezalaxe, garrantzi berezia eman nahi izan zaie beharrezkoak jotzen diren garbiketa lanak egin ahal izateko nahiko giza-baliabide jarriaz.

Bestalde, Agenda 21-ari eta bereziki ikastetxeek gai honetan egiten duten lan eskergari bultzada bat eman nahi izan zaio beharrezkoak dituzten baliabide ekonomikoak bideratuz .



OIARTZUNGO
UDALA

Gauzak horrela aurten, beste urteetan bezalaxe, udalez kanpo baina gure arduraren barne sartzen diren hainbat egituretan parte aktibo izaten jarraituko dugu, hala nola:

1. **Gipuzkoako parke-etxe sarea:** Gipuzkoako Foru Aldundiak parke-etxe sare bat sortua du eta Udalak proiektu honetan parte hartzen du.
2. **Aiako Harriko Parke Naturala:** Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, behar beharrezkoa dugun kudeaketa partekatu honetan sakontzen jarraitu nahi dugu.
3. **Ondare naturalaren garbiketa lanak:** urteroko lanak badira ere 2016an lan hauek sakonagoak izango dira eta horretarako 40.000,00 €-ko partida jarri dugu eta bi langile jarriko dira horretarako.
4. **Trituradora baten erosketa:** kimaketen lanen ondorioz sortzen den hondakinari irtenbide bat eman asmoz.

Kultura, euskara eta kirolaren arloari dagokionez, iazko ekimenekin jarraituko dugu.

Euskarari dagokionean, arlo estrategikotzat ulertzen dugunez, 2011n egindako Euskara Bizi Berritze Plan Nagusia (EBPN) gauzatzen joan dadin ahal den neurrian baliabideak jarriko dira. Besteak beste, lehentasuna **Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko planak, ahozkotasanak** (oiartzuera sustatzea) eta **etorri berrien hizkuntza harrerak** izango du. Bestalde, 2016. urtean arlo sozioekonomikoa (enpresa txiki eta ertainak) gehiago landu eta sakondu nahi dugu eta ikerketa soziolinguistikoa egin. Horrez gain, aurreko urtean beka sisteman egindako aldaketarekin aurrera jarraituko dugu, helduen euskalduntzean erraztasunak emanez.

Azkenik, herriko euskalgintzarekin harreman estua mantentzen jarraituko dugu ekimen eta hitzarmen ezberdinak aurrera atera ahal izateko.

Kirolari dagokionez, elkartei babesteko **diru laguntza handituko** da. Elkarteekin Kirol kontseiluan adostutako irizpide taularen baitan banatuko dira diru laguntzak eta beraiekin elkarlanean taula hau egokitzen jarraituko dugu, datorren denboraldirako irizpide berriak indarrean jarriko direlarik. Sor daitezkeen murrizketen ondorioak konpentsatzeko eta bereziki sustatu nahi diren kirol jarduerak laguntzeko partidarekin jarraituko dugu. Era berean, datu basearen aplikazio informatikoa hobetzen jarraituko da eta E1 egitasmoa, emakumea pilotari eta eskola pilota egitasmoak babesten jarraituko da. Eskualdeko Kirol mahaiaren partaide izaten jarraituko dugu eta eskualdeko egitasmoetan parte hartuko dugu.

Kiroldegia herriko instalakuntza erabilienetakoa izanik, egun bizi duen egoera tarteko, partida indartu dugu, herriari ematen zaion zerbitzu hau mantentzearen.

Madalensoro pilotalekuko instalazioa zaharkitua dagoenez 300.000,00 €-ko bideratuko dira OKISA udal entitatearen bitartez bertako obrak burutzeko.

Gazteriari dagokionez, partida bat zehaztu da herriko gazteek bultzatuta sor daitezkeen proiektuak babesteko. Ekintzailetasuna bultzatzea du helburu.

Udaleku, Kale ekintzak, Ludoteka eta Familia eremua batu ziren, honela gazteen aisialdirako proiektu eta ekintzak babesteko eta bide horretatik jarraituko dugu.



Azkenik, iaz gazteei eskaintzeko martxan jarritako egitasmo berritua, Kuadrillategi izena mantendu duena, Euskara sailarekin batera mantendu dugu eta egitasmoa diruz indartu dugu.

Kultur arloan iaztik habian jarritako hainbat egitasmorekin jarraituko dugu, eta beste zenbait egitasmo berri martxan jartzea ere aurreikusten dugu. Hauek izango dira puntu nagusienak:

- 1. Antzerkingintza indartzen jarraitu.**
- 2. Astralamustrika bilduma.** 2015ean Astralamustrika bildumako azken alea argitaratuko dugu. 2012an bildumarekin amaitzea planteatu genuen, baina azken bi ale hitzartuta zeuden eta beraz azken bi aleak bi urtetik behin eta beste modu batera egitea proposatu genuen.
- 3. Beloagaren Zaharberritzea:** diruz lagunduko oda egitasmo hau 17.000,00 €-ko partida jarritz.
- 4. Liburutegiko lanekin amaitzeko** altzariz eta ordenagailuz hornituko da prestatutako gela berria

Egoera ekonomikoa.

Aurrekontu Orokorra. Udaleko egoera ekonomikoa normala da, ohiko diru-sarrerak (15.616.660,00 €.-) ohiko gastuei (13.570.780,00 €.-) gainditzen dituztelako, horrela gaindikin hauek inbertsio gastuak finantzatzeko bideratuz.

Estabilitate Lege berriari jarraituz sarreretako lehenengo 7 kapituluak gastuetako 7 kapituluak baino handiagoak dira.

Egoera finantzarioa.

Eskueran dauden errekurtsoen jariakortasun eta aldizkotasunak gastuen ordainketa puntuala onartzen du.

Orubearen Egoera

Gaur egun indarrean dagoen Udal ondarearen inbentarioa egokitu behar da.

Laborazio Irizpideak

2016 ekitaldirako egin den Aurrekontu Proiektua 2015 urteko Aurrekontuaren exekuzioan informaziotik abiatuta egina izan da, era berean kontuan izan da etengabeko jarraipenaren betebeharrak, bai legeak ezarrita edo onartu diren betebeharren arabera, dena



den, aurreko ekitaldiko etekinen arabera estimatu diren diru-sarrerak edo tarifa eta kuotan igoeraren ondorio bezala.

Aurrekontuaren edukia

Ondoren aipatzen dira aurreko Aurrekontua kontuan edukita egin diren aldaketa nagusienak:

1. Gastuaren aldaketa. Jarraitu den irizpidea 2015eko aurrekontuaren exekuziotik abiatu eta K.P.I.-ren igoera ezartzea izan da ohizko gastuarentzat.
2. Dirubidetze gastuei buruz esan daiteke hauek pasa den ekitaldiarekin parean izango direla, OKISARA eta OTASAREN jarduera arrunta eta Oiartzungo Udal Partzuergoa aurrera eramateko dirulaguntzak izapidetuz.
3. 3. eta 9. kapituluetan. Aurreko urteetan egin diren inbertsioen eragina ikusten da aurreikusten diren gastuetan.

Diru-sarretan aldakuntza

1. 2. eta 3. kapituluko ohiko diru sarreraren igoera zergadun unitate berriak azaldu direlako izan da, zergapide oinarrien igoera, Udalak onartutako akordioetan Ordenantza Zergetako tarifa, tipo edo kuoten igoeragatik. 2. kapituluan, aurreko urteetan moduan, oso behetik jo da krisi ekonomikoak eraikuntza alorrean eragin duen geldialdiagatik, baina 2015ean suspertu egin denez igoera aurreikusi da.

4. kapituluan iazko kopuruekin alderatuz, igoera Foru Fondoaren igoeragatik dator.

5. kapituluaren kasuan, 2015eko ohiko sarrerekin osatu da.

9. kapitulua Udaleko zorpetzearen arabera finkatu da. Aurrekontua estutzen lan handia egin da azken 2 ekitaldietan eta honen ondorioa izan da atal honen jaitziera 2016 urteari begira udalak ez du mailegurik aurreikusten. Ahal den neurrian zorpetzearen jaitzierarekin jarraitu nahi dugu etorkizunean, beti ere diruzaintza egoera zainduz estutasunik ez pasatzeko.

Oiartzun, 2015eko abenduaren 10a
ALKATEAK,